HIZKUNTZA NEURKETA

SAN FAUSTO JAIAK 2026

AURKIBIDEA

1. Sarrera 2

2. Metodologia eta neurketaren lagina 2

3. Neurketaren emaitza orokorrak..... 3

3. 1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzak 6

3. 2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzak 9

3. 3 Barrakak 11

4. 2024ko jaiekin konparaketa 11

4.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa 13

4.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa 14

4.3 Barraketako ekintzen konparaketa 16

5. Balorazioa eta ondorio nagusiak 16

6. Datorren urteko jaietarako proposamenak 17

ERANSKINA: Behatutako ekintzen zerrenda 19

Azaleko argazkiak: Anboto

1. Sarrera

Durangoko San Fausto jaietan izan ohi dugun programazioaren hizkuntzak sortutako kezkak eraman zuen Berbaro Elkartea sanfaustoetako ekimenen hizkuntza azterketa egitera. 2019. urtean egin genuen lehenengoz azterketa mota hau. Urte hartan, jaietako ekintzen gehiengoa gazteleraz izan ziren eta kezka sortu zuen horrek euskararen normalizazioaren alde gauden eragile eta herritarron artean.

Harrezkero, urte birik behin (2022, 2024 eta 2026) egin dugu neurketa. Uste dugu beharrezkoa dela San Fausto jaietan programatzen eta eskaintzen den egitaraua zein hizkuntzatan egin den aztertzen jarraitzea, datuak mahai gainean ipini, eta, aurrera begira, zer hobetu behar den zehaztea.

Azterketa honen helburua datu zehatzak eman eta hurrengo urteei begira jaietan euskarazko eskaintza handitzea eta nagusi bilakatzea da, Durangoko jaiak jai euskaldunak izan daitezen. Uste dugu euskarak merezi duen lekua behar duela Durangon –jaietan batez ere, jendeak momentu atseginak eta lagun-artekoak bizi dituen sasoia delako– eta hizkuntza gutxitua izanik, erabateko lehentasuna behar duela.

Horretarako, datu hauek emateaz gain, Berbaro Elkartea prest dago jaien antolakuntzan aritzen diren eragile, norbanako eta elkarteekin harremana egin eta laguntza emateko.

2. Metodologia eta neurketaren lagina

2026ko San Fausto jaietako bi asteburuetan (urriaren 9tik 18ra) programatu diren ekintza gehienak neurtzen saiatu gara, udaleko egitarau ofizialeko ekimen gehienak behatu ditugu. **Programatutako ekintzen % 87 inguru neurtu ditugu, hots, 147 ekintza. Horietatik 21ean ez da hizkuntzarik erabili, eta, aldiz, gainontzeko 126an bai.**

Oro har, ekimen jendetsuenak neurtu ditugu, eta guztiei garrantzia bera eman diegu. Parte hartzaile kopurua neurketatik kanpo utzi dugu.

Ekintza baten hizkuntza zehazterako orduan, lau elementu izan ditugu kontuan:

Aurkezpena: Saioak edo ekintzak aurkezpenik izan badu, norbaitek sarrera bat eman badio, hau, zein hizkuntzatan egin duten.

Ekintza: Zein den erabili den hizkuntza ekintzak berak hizkuntzarik izan badu.

Dinamizazioa: Zein hizkuntzatan zuzentzen zaizkien parte hartzaileei dinamizatzaileak edo lanean ari den jendea.

Euskarriak: Idatzizko euskarriak (kartelak, orriak, letreroak...) edo soinu-euskarriak (kuñak, musika...) egon badira, zein hizkuntzatan izan diren.

Ekintzak euskaraz, erdaraz, ele bitan euskaraz gehiago, ele bitan erdaraz gehiago edo ele bitan izan diren zehaztu dugu, lau elementu horiei erreparatuz, betiere jakinda batzuetan bata eta bestearen arteko mugak nahiko lausoak direla.

Guztira, **hizkuntza erabili den 126 ekintza** behatu ditugu, ondorengo irizpide hauek kontuan hartuta:

- Hizkuntza duten jarduerak soilik hartu ditugu kontuan.
- Ekintza bera parte hartzekoa izan bada (lehiaketak, jolasak...), ez dugu parte hartzaileen hizkuntza erabilera neurtu, soilik antolatzaile eta dinamizatzaileena.
- Ekintza bat uneoro martxan egon bada, egunean behin egin izan balitz bezala hartu dugu kontuan (barrakak adibidez).

3. Neurketaren emaitza orokorrak

Aurten neurtutako 126 ekintzak bere osotasunean hartuta, hauek dira hizkuntzari dagokionez sanfaustoetako datuak: 61 ekintza izan dira euskaraz, 40 erdaraz eta 25 ele bitan: horietatik 9tan euskara gehiago erabili da, 2tan gaztelera eta beste 14tan orekatuta egon da erabilera.

Datuak grafikoki adierazita:



Alderatzeko, 2024ko grafikoa ere ikus dezakegu:



Jaietako ekintza horiek arlo desberdinetan sailkatu ditugu, analisia sakonagoa egin ahal izateko. Hemen dago ikusgai 126 ekintza horiek zein motakoak izan diren:



Arlo horietako bakoitza banaka hartuz gero, hauek dira hizkuntzari buruzko datuak:

Musika:



Euskaraz 20 / ele bitan, euskaraz gehiago 5 / ele bitan 5 / ele bitan, erdaraz gehiago 1 / erdaraz 14

Umeentzako ekintzak:



Euskaraz 16 / ele bitan 2 / erdaraz 11

Ekitaldiak:



Euskaraz 4 / ele bitan 2

Lehiaketak:



Euskaraz 4 / ele bitan 1 / ele bitan, erdaraz gehiago 1 / erdaraz 1

Antzerkia:

Erdaraz 5

Beste batzuk:



Euskaraz 17 / ele bitan, euskaraz gehiago 4 / ele bitan 3 / erdaraz 9

Ekintza horiek antolatzailearen arabera banatu ditugu, aurreko neurketetan egin dugun moduan: alde batetik Jai Batzordeak eta Durangoko beste elkarte batzuek antolatutakoak, guztiak ere Jai Batzordeak onartuak eta programan sartutakoak; beste alde batetik, Txosna Batzordeak antolatutakoak; eta, azkenik, barrakak.

Hauek dira hizkuntzari dagozkion datuak antolatzailearen arabera:

3.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzak

Guztira Jai Batzordetik edo Jai Batzordearen txapelpean antolatutako 86 ekintza behatu ditugu. Horietatik 42 izan dira euskaraz, 28 erdaraz eta 16 ele bitan. Ele bitan izan diren horietatik 4tan euskara gehiago erabili da eta bakarrean erdara gehiago; beste 11tan bi hizkuntzak orekatuta.

Datuak grafikoki adierazita:



Datu horiek horrela geratzen dira ekintza motaren arabera banatuta:

Musika:



Euskaraz 14 / ele bitan, euskaraz gehiago 1 / ele bitan 3 / erdaraz 9

Umeentzako ekintzak:



Euskaraz 14 / ele bitan 2 / erdaraz 4

Ekitaldiak:

Euskaraz 1 / ele bitan 1

Lehiaketak:



Ele bitan 1 / ele bitan, erdaraz gehiago 1 / erdaraz 1

Antzerkia:

Erdaraz 1

Beste batzuk:



Euskaraz 12 / ele bitan, euskaraz gehiago 3 / ele bitan 3 / erdaraz 9

3.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzak

Txosna Batzordeak antolatutako 33 ekintza hartu ditugu kontuan. Horietatik 19 izan dira euskaraz, 5 erdaraz eta 9 ele bitan. Horietatik 5ean euskara gehiago erabili da eta beste batean erdara gehiago.

Modu grafiakoan adierazita:



Datu horiek ekintza motaren arabera banatuta:

Musika:



Euskaraz 6 / ele bitan, euskaraz gehiago 4
ele bitan 2 / ele bitan, erdaraz gehiago 1 / erdaraz 5

Umeentzako ekintzak:

Euskaraz 2

Ekitaldiak:

Euskaraz 2

Lehiaketak:

Euskaraz 4

Beste batzuk:



Euskaraz 5 / elebitan 1 / ele bitan 1

3.3 Barrakak

Barraken neurketa egiteko, egun bakoitza ekintza bakar moduan zenbatu dugu. Hori horrela, 7 ekintza moduan hartu ditugu barrakak, eta guztiak erdaraz izan dira.

Modu grafikoan:

4. 2019, 2022 eta 2024ko jaietako datuekin konparaketa

Aurtengo jaien emaitzak azaldu ostean, interesgarria deritzogu 2019, 2022 eta 2024ko neurketekin konparatzea, aldaketa nabarmenik egon den ikusi eta aldaketa horiek zein norabidetan izan diren ikusteko.

Soilik aldaketa nabarmena edo esanguratsua eduki dutenen datuak ipini ditugu, gainontzean datuak antzera geratu baitira.

2019, 2022 eta 2024ko egitarau osoak konparatuta, grafiko honetan ikusi daiteke aldea:



Musika eta umeen arloan ere konparaketa egin dugu, datuak esanguratsuak direlako:

Musika:



Umeentzako ekintzak:



Ikus daitezkeenez, 2026ko jaietan % 5,4 igo da euskara hutsean egin den eskaintza, eta % 7,7 gaztelera hutsean egindakoa. Umeentzako eskaintzan egin du aurrera pausorik handiena euskarak; 7 puntu, hain zuzen. Bestalde, musikan euskara hutsean egindako eskaintzak % 3

gehiago izan dira. Gaztelera hutsean egin diren ekintzen kasuan % 7 igo da musikan, eta, aldiz, % 4 jaitsi umeentzako ekintzetan.

4.1 Jai Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa

Jai Batzordeak edo Jai Batzordearen txapelpean 2019an, 2022an eta 2024an antolatutako ekintzen alderaketa orokorra eginda, horrela geratu dira datuak:



Hemen ere musika eta umeen arloko ekintzen konparaketa egin dugu, horiek direlako esanguratsuenak eta alde nabarmenena dutenak:

Musika:



Umeentzako ekintzak:



Jai Batzordeak egin duen eskaintzan elebitasunak behera egin du; hain zuzen, 17 puntu jaitsi da. Hori horrela, euskara hutsean egindako eskaintza 6 puntu igo da, eta gaztelera hutsean egindakoa 11. Hau da, gaztelerak lekua irabazi du jai batzordearen eskaintzan; euskarak, aldiz, lekua galdu du. Joera hori musikan zein umeen eskaintzan ikus daiteke.

4.2 Txosna Batzordeak antolatutako ekintzen konparaketa

Kasu honetan, Txosna Batzordeak 2019an, 2022an, 2024an eta 2026an antolatutako ekintzen alderaketa orokorra eginda, hauek dira datuak:



Musika:



Besteak:



Txosna Batzordearen egitarauan euskara hutsean egindako ekintzak % 2 igo dira; era berean, erdara hutsean egindakoak % 3. Horrenbestez, ele bitasuna % 5 jaitsi da. Gauzak horrela, euskarak ez du ez atzera ez aurrera egin.

Txosnaguneko ekintzak, oro har, euskaraz egiten dira. Dena den, musikaren eremuan euskara pisua galtzen ari da; izan ere, azken 8 urteetako presentzia baxuena izan baitu euskarak aurten.

4.3 Barraketako ekintzen konparaketa

Hemen argi ikusten da egoera ez dela batere aldatu:



5. Balorazioa eta ondorio nagusiak

Emaitza horiek ikusita, Berbaro Elkartetik hau da egiten dugun balorazioa:

- **Ele bitan egindako ekimen gutxiago egin dira, eta euskara hutsean edo gaztelera hutsean egindako ekimen gehiago. Dena den, gaztelera hutsean egindako ekimenek izan dute igoera handiena.** Izan ere, duela bi urtetik hona % 5,4 igo da euskara hutsean egindako eskaintza, eta % 7,7 gaztelera hutsean egindakoa. Hori horrela, ekimen gehiago egon dira euskararen presentziarik gabe. Aitzitik, arnasgune funtzioa duten eta euskara hutsean egiten diren ekimen gehiago egon dira.

- **Euskara ez atzera ez aurrera dago Durangoko jaietan:** 2022az geroztik ez dago igoera nabarmenik. Aurten, euskara hutsean egindako ekimenetan aurrera pausoa egon da, eta bide horretatik jarraitu behar da. Aldiz, gaztelera hutsean egindako ekimenek gora egitea atzera pausoa da, euskararen presentzia ahalik eta ekimen gehienetan bermatu behar baita.

- Jai Batzordeari dagokionez, aipatutako joera hori bertako ekintzetan ikus dezakegu. **Euskarazko ekintzak % 6 igo dira**, eta oso positiboa da hori. Era berean, **erdaraz egindakoak % 11 igo** dira, eta kezkatzekoa dela uste dugu. Gure aburuz, berehala hartu daitezkeen neurri batzuk daude: batetik, euskaraz egindako ekintzak % 50etik gora egon behar dira ezinbestean, eta, bestetik, gaztelera hutsean egindako gehienak ele bitan egin daitezke.

- Halaber, aurtengo **5 antzerkiak (3 antzerki eta 2 bakarrizketa) gazteleraz** izan dira, eta atzera pausoa izan da hori. Hain zuzen ere, diziplina oso bat gaztelera hutsean eskaintzea berehala aldatu beharrekoa da.

- Txosna Batzordeak antolatutako ekintzetan ere antzeko joera gertatu da: **euskara hutsean egindako ekintzak % 2 igo dira eta erdara hutsean egindakoak % 3**. Txosna Batzordeak Durangoko jaiak euskalduntzeko ekarpen handia egiten jarraitzen du, baina atzera pausoak gertatzeko arriskua ere badagoela uste dugu.

- Esaterako, **txosnetako musika eskaintzan euskarak gero eta presentzia txikiago du.** Hain zuzen ere, % 33a izan da euskaraz eta % 39a ele bitan; eta, beraz, egindako neurketa guztietako urteen artean, aurtengoan izan du euskarak presentzia baxuena Txosna Batzordearen musika eskaintzan.

- **Umeentzako eskaintzan euskarak leku gehiago irabazi du, % 7 igo baita.** Bien bitartean, 3 puntu jaitsi da ele bitan egindako eskaintza eta 4 erdaraz egindakoa. Hala ere, umeen eskaintza guztia euskaraz egin beharko litzateke, eta, horrenbestez, balorazioa ez da guztiz positiboa.

- Hitz gutxitan, **2024ko datuen antzekoak dira aurtengoak, baina gaztelerak euskarak baino leku gehixeago irabazi duela esan daiteke.** Halaber, antzerkian edo musikan zantzu kezkagarriak daude; hots, kultur eskaintzan.

6. Datorren urteko jaietarako proposamenak

Hona hemen 2027ko San Fausto jaietara begira bai Jai Batzordeari eta Txosna Batzordeari egiten dizkiegun proposamenak:

- Barraketan uste dugu hizkuntzari dagokionez baldintza zehatzak ezarri behar direla barrakak ipini ahal izateko, batez ere musikaren hizkuntzari dagokionez. Beste herri batzuetan egiten den moduan, barraketako musika zein izan behar den Udalak ezartzea oso eraginkorra izango litzateke.

- Umeentzako diren beste ekintza batzuetan, ekintza aurrera eramateko kontratatuko den enpresari euskarazko begiraleak ipini ditzaten exijitzea. Horretarako aukerarik ez

badute eta ekintza hori enpresa horrek bakarrik egin ahal badu, horien osagarri izango diren beste begirale euskaldun batzuk kontratatzea. Aurretiaz aipatutako guztiarekin, umeentzat jaiak erabat euskaraz izan daitezela lortu daiteke.

- Bestelako ekimenei dagokienez, ekitaldi publiko eta lehiaketetan elebitasuna gainditu eta eta euskarari zentraltasuna ematea. Horrelako aisialdiko ekintzetan euskara bakarrik erabiltzeak lotura positiboa sortu eta hizkuntza pedagogia egin dezake.

- Antzerki eskaintza guztia gazteleraz egin izana oso kezkagarria da, eta zorrotz zaindu behar da diziplina bat gaztelera hutsean ez eskaintzea. Hori horrela, programazioa diziplinaz diziplina aztertzea eta guztietan euskara nagusi izatea garrantzia handiko zeregina da.

- Azkenik, musika eskaintzan erderek hartu duten presentzia arretaz jarraitzekoa dela deritzogu eta euskarazko musika eskaintza nagusi izateko pausoak ematea. Hemen ere, aurreko puntuan esan bezala, gutxienez eskaintzaren erdia euskara hutsean egiteko baldintzak egon badaude.

Amaitzeko, uste dugu euskarazko programazioan aurrerapausoak egiten jarraitu behar dela. Euskara hizkuntza gutxitua izanik, euskara lehenetsi eta Durangon jai euskaldunak egin behar dira, behaketetan argi ikusi baitugu euskara hutsez egin diren ekintza gehienetan euskara ulertzen ez zuen jendeak ere ez duela arazorik izan bertan parte hartu eta ondo pasatzeko.

Berbaro Elkartea prest dago jaien antolakuntzan murgiltzen diren batzorde, elkarte eta taldeekin elkarlana egin eta behar duten laguntza emateko.

ERANSKINA: Behatutako ekintzen zerrenda

Hemen daude ikusgai behatu ditugun 147 ekintzak (hizkuntza 126tan erabili da), eta euretako bakoitza, oro har, zein hizkuntzatan izan den:

	EKINTZA	SAILKAPENA	ANTOLATZAILEA	HIZKUNTZA
UR.9	Durangoko pilota eskolako umetxoen partiduak San Fausto pilotalekuan	UMEAK	DURANGO PELOTAZALE KLUBA	Euskaraz
	XXVI. "Durango Uria" lehiaketako margolanen erakusketaren inaugurazioa Ez	BESTEAK	DURANGALDEKO ARTISTEN ELKARTEA	Ele bitan
	Kalejira Santa Anatik txosnagunera BROKEN BROTHERS BRASS BAND-ekin	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Ele bitan
	Txupinazoa txosnetan: Intxaurre	EKITALDIA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	Kontzertuak txosnetan:	-	-	
	MOONSHINERDS	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Erdaraz
	KATU	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Ele bitan, euskaraz gehiago
	FOSIL	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	Profesionalen pelota partiduak Ezkurdin	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Erdaraz
UR.10	Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. *Patxikotxu auzoz auzo*	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Nesken pelota, pala eta federatuen partiduak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan	BESTEAK	DURANGO PELOTAZALE KLUBA	Hizkuntza barik
	Musika animazioa XAIBOR DJ-arekin San Fausto auzoan.	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	TABIRA MUSIKA BANDAren emanaldia J.M. Barandiaran egoitzan	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Ele bitan, euskaraz gehiago
	Kuadrillen jaitsiera IRULITXA FANFARRIAREKIN	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Hizkuntza barik
	Txupinazoa udaletxeko plazan SASIKOA KIROL KLUBAren eskutik	EKITALDIA	JAI BATZORDEA	Ele bitan
	"SAN FAUSTOKO JAIAK" argazkien bideoa. Andra Mariko elizpeko pantailan	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Hizkuntza barik
	Gazte eguneko bazkaria txosnagunean. Ostean, jolasak.	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	Ghanako jaia: artisautza, musika, dantza... Santa Ana plazan	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Erdaraz
	Txikientzako BOOM BOOM musika-saioa Ibaizabal parkean	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	PRIMO BAYO txaranga San Fauston tabernaz taberna	MUSIKA	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Erdaraz
	MAUXITXA txaranga txosnagunetik hasita	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	"Txori Zoro gogoan" 80ko hamarkadako musika Plateruenan, PEKE eta RAYÓN	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Erdaraz
	Senegaleko erritmoak M'LOMP elkartearekin udaletxeko plazatik hasita	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Hizkuntza barik
	LA PARADETA antzerkia Aurora Abasolo parkean	ANTZERKIA	JAI BATZORDEA	Erdaraz
	Blusatxaranga LA TUNA fanfarrearekin Ezkurditik, alde zaharra eta udaletxe p	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Hizkuntza barik
	Kontzertuak Andra Mariko elizpean	-	-	
	SOROTAN BELE GOGOAN + Kontserbatorioko ikasleak + Tabira musika banda	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Ghanako txaranga alde zaharretik	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Hizkuntza barik
	Kontzertuak txosnagunean	-	-	
	SKAREGEKASKO	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	AIMAR Z	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Ele bitan, euskaraz gehiago
	KENE MP3	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Erdaraz
	Kontzertua Ezkurdin: LATZEN	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
UR.11	EIXU artisau azoka Ezkurdin	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	San Fausto haur marrazki lehiaketa San Fausto auzoan	UMEAK	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Hizkuntza barik
	Txikientzako parkea Landako eskolan	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Artisau Azoka txosnagunean	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	Ipuina ingelesez Ezkurdiko kioskoan	UMEAK	KIDs&US	Erdaraz
	Poniak eta zaldiak Ibaizabal parkean	UMEAK	JAI BATZORDEA	Ele bitan
	Umeentzako jolasak, KALAKAren eskutik txosnagunean	UMEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	Kalejira Musika Eskolako txistulariekin	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Euskal dantzak HAATIK konpainirekin Aurora Abasolo Parkean	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Kalejira ASTARLOA OTXOTEA eta IRUÑAKO AHOTS TALDEA abesbatzekin alde za	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Ele bitan
	Kontzertu akustikoa: IÑAKI SEVILLA eta PERI IBAÑEZ udaletxeko plazan	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Erdaraz
	Herriko taldeen dantza erakustaldia. Bitartean, Bermut dastaketa	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	Herri bazkaria San Fauston	BESTEAK	SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA	Hizkuntza barik
	Txikientzako parkea Landako Eskolan	UMEAK	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Durangoko Xake Aktiboko II. Opena merkatu plaza berrian.	BESTEAK	LARRASOLOETA XAKE TALDEA	Erdaraz
	Patxikotxu auzoz auzo . Ibaizabal parkean	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Hizkuntza barik
	Kuir eztanda poteoa Pinondotik txosnagunera	BESTEAK	TXOSNA BATZORDEA	Ele bitan, euskaraz gehiago
	41.San Fausto zesta punta txapelketaren finalak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan	LEHIAKETA	DURANGO JAI ALAI ZESTA ESKOLA	Ele bitan, erdaraz gehiago
	GOXO TXARANGA alde zaharretik	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Hizkuntza barik
	Bingo musikatua Madalena auzoan	BESTEAK	JAI BATZORDEA	Erdaraz
	Musika kubatarra euskaraz TIKTARA taldearekin Santa Ana plazan	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Umeentzako diskodantza San Fauston	UMEAK	JAI BATZORDEA	Ele bitan
	LAS QUE FALTABAND taldea Andra Mariko elizpean	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Erdaraz
	Diskodantza San Fauston	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Ele bitan
	XIBEROOTS eta 48280 Ezkurdin (Gazte Foro Gaua)	MUSIKA	JAI BATZORDEA	Euskaraz
	Kontzertuak txosnagunean:	-	-	
	PUTAS AMAK	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Ele bitan, euskaraz gehiago
	MARTE LASARTE	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Euskaraz
	SIWANABA	MUSIKA	TXOSNA BATZORDEA	Erdaraz

2026ko San Fausto jaietako hizkuntzaren neurketa

UR.12				
	Nekazaritza azoka merkatu plaza inguruan	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Ele bitan
	Txikientzako parkea Landako Eskolan	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Umeentzako kalejira eta buruhandiak alde zaharretik	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	Haurrentzako tailerrak Ibaizabal parkean	**UMEAK**	**IÑURRI ESKAUT TALDEA**	Euskaraz
	Kalejira Musika Eskolako txistulariekin	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Arte martzialen kalejira Ezkurditik hasita, eta ondoren erakustaldia Ezkurdin	**BESTEAK**	**WADO KAN KARATE-NINJUTSU KLUBA**	Erdaraz
	Txupinazo txikia udaletxe plazan (JESUITAK ikastetxearen eskutik)	**EKITALDIA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Euskal dantzak KRISKITIN DANTZA TALDEAREKIN	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Nagusientzako bazkaria Landako gunean orkestrak girotua	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Ele bitan, euskaraz gehiago
	Patxikotxu auzoz auzo . Muruetatorre auzoan	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	Tortilla txapelketa San Fauston	**LEHIAKETA**	**SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA**	Ele bitan
	Batxata eta ilara-dantza Muruetatorre auzoan	**BESTEAK**	**MURUETA TORRE AUZO ELKARTEA**	Erdaraz
	JENGA txapelketa Torneos Durango elkartearen eskutik Ezkurdin	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	JAZZ FOR CHILDREN taldea Andra Mariko elizpean	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	BANABA FLUP antzerkia Aurora Abasolo parkean	**ANTZERKIA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	Kontzertua txosnagunean: CRISTOPHER SIMPSON & MAR LARGE 'KUBA ETA KAT	**MUSIKA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Erdaraz
	ANGEL MARTÍN monologista San Agustin Kultur Gunean (sarrera 18€)	**ANTZERKIA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	Durangoko taldeen kontzertuak Ezkurdin	-	-	-
	Lorreine	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	11 IKUSTEKO JAIOAK GARA	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	GAR	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	DJ maratoi herrikoia txosnagunean	**MUSIKA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Ele bitan
UR.13	Durango Irratia 107.8FM: solasaldiak udal ordezkari eta herritarrekin Ezkurd	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Ele bitan, euskaraz gehiago
	Meza nagusia San Fausto elizan	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Ele bitan, euskaraz gehiago
	Txikientzako parkea Landako Eskolan	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Paella txapelketa txosnagunean	**LEHIAKETA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	Txalaparta, ohorezko aurreskua eta artopilen banaketa udaletxeko plazan	**EKITALDIA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Familientzako magia ikuskizuna txosnagunean: POTX MAGOA	**UMEAK**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	DURANGO KANTARI, EGUNDO I taldearekin alde zaharretik	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Txosnaguneko paellen aurkezpena eta sari banaketa	**LEHIAKETA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	Mañaria errekaren jaitsiera Tabiratik	**BESTEAK**	**TXOSNA BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	Musika eta txotxongiloak: "Kontu Kantari 2" La Enana Naranja konpainiaren	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Umeentzako jolasak San Fausto auzoan	**UMEAK**	**SAN FAUSTO ZENTRO SOZIALA**	Hizkuntza barik
	DANTZARO: PATXI ETA KONPAINIA TALDEA Ezkurdin	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	ANGEL MARTÍN monologista San Agustin Kultur Gunean (sarrera 18€)	**ANTZERKIA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	ELEKTRO FANFARRIA txikientzako Durangoko kaleetatik	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	REVIVAL taldea Andra Mariko elizpean (60-70eko hamarkadako abestien bert	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
UR.16	PILOTA FEST Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan	**BESTEAK**	**DURANGO PELOTAZALE KLUBA**	Euskaraz
	BALOI ESERI txapelketa merkatu plazan	**UMEAK**	**TORNEOS DURANGO**	Erdaraz
	ZIRKU TAILERRAK Aurora Abasolo parkean	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Tortilla txapelketa txosnagunean	**LEHIAKETA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	Kantusaioa BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK taldearekin Otamotzena parke	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Durangoko abesbatzen kontzertua Santa Ana elizan: ZEZILI, BOGORODITSIE, DURANGOKO ORFEOIA eta IZAR GAZTEA	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Ele bitan
	Txosnaguneko tortillen aurkezpena eta sari banaketa	**LEHIAKETA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	Umore saioa AROA BERROZPErekin Andra Mariko elizpean	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	Drag Txoua txosnagunean: MARITXU HANKATXU eta IGURTZI SERRANO	**BESTEAK**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	Kontzertuak txosnagunean:	-	-	
	THE IIINGLES	**MUSIKA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	MJPQ	**MUSIKA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Kontzertua Ezkurdin: LEIRE MARTINEZ	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
UR.17	Txikientzako parkea Landako Eskolan	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Xake txapelketa Ezkurdin	**LEHIAKETA**	**LARRASOLOETA XAKE TALDEA**	Erdaraz
	Kalejira musika eskolako txistulariekin	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	Kalejira TXIRI TXIRI trikitilari taldearekin	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	LUHARTZ Andra Mariko elizpean	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	"Durango Uria" XXIV. margo lehiaketaren sari banaketa Ezkurdiko erakusketa	**EKITALDIA**	**DURANGALDEKO ARTISTEN ELKARTEA**	Ele bitan
	Karropoteoa KATXARRO karrozarekin Santa Anatik hasita	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Ele bitan
	Elkartasun bazkaria txosnagunean	**BESTEAK**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	Ekitaldia txosnagunean	**EKITALDIA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	Kontzertu partehartzailea OIER ASLArekin txosnagunean	**MUSIKA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Ele bitan, euskaraz gehiago
	Kalejira SUGARRI fanfarrearekin	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	Taldekako mozorro desfilea Madalenatik Andra Marira. Jarraian sari banake	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	"LA ÚLTIMA Y NOS VAMOS" antzerkia Aurora Abasolo parkean (TRAPU ZAHARR	**ANTZERKIA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	LUHARTZ Andra Mariko elizpean	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Kontzertuak txosnagunean:	-	-	
	ALARMA MOREA	**MUSIKA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Euskaraz
	SEDIENTOS DE KUMBIA	**MUSIKA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Erdaraz
	XAUKENA XAUK	**MUSIKA**	**TXOSNA BATZORDEA**	Ele bitan, erdaraz gehiago
	ALASKA ON TOUR orkestra Ezkurdin	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	Alkoholemia kontrolerako stand informatiboa txosnagunean	**BESTEAK**	**TXOSNA BATZORDEA**	Ele bitan
UR.18	Txikientzako parkea Landako Eskolan	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Patxikotxu auzoz auzo Tabira auzoan	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean	**UMEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Poniak eta zaldiak Tabira parkean	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Ele bitan
	Herri kirolak Ezkurdin	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	TABERNA IBILTARIArekin kantusaioa udaletxeko plazan	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Euskaraz
	Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L'ATELIER DANTZA ESKOLAren eskut	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	Patxikotxu auzoz auzo Otamotzena parkean	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	MERAKI zirku-ikuskizuna Otamotzena parkean, EDU MANAZAS konpainiarekin	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	RUMBO A TIJUANA mariatxiak Andra Mariko elizpean	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Erdaraz
	Kalejira DUNBOTS fanfarrearekin Otamotzena parketik udaletxera	**MUSIKA**	**JAI BATZORDEA**	Hizkuntza barik
	Patxikotxuri agur esateko kalejira udaletxeko plazatik tren-kotxera zaharreta	**BESTEAK**	**JAI BATZORDEA**	Hizkuntza barik